Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren ildo nagusiak (XIII Legealdia)

Xedea

Ezagutza aurreratuaren aldeko apustua, abangoardiako ezagutzaren sorkuntza, transmisio eta zabalkunde soziala bultzatuz, gizarte oparoago, kohesionatuago eta demokratikoago baten zerbitzura.

Oinarria

Ezagutza aurreratua aberastasun, ongizate eta gizarte kohesioaren iturri da.

Testuinguru instituzionala

"*Para dar un salto cualitativo económico-tecnológico-industrial, es fundamental fortalecer nuestro ecosistema científico y tecnológico. De ahí la apuesta por el nuevo Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación. Un departamento para impulsar decididamente el conocimiento avanzado y la innovación en Euskadi. El conocimiento y su difusión social favorecen el fortalecimiento de la democracia. Y el ámbito científico-universitario, además, constituye una puerta de entrada natural para la retención y atracción de talento a Euskadi.*"

(Palabras del Lehendakari en el Fórum Europa-Tribuna Euskadi, 11/9/24).

Sailaren egitekoak eta eremuak

- Goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Autonomia Estatututik eratorritako ahalmenak.
- Zientzia Politika.
- Oinarri zientifikoko ekintzailetza.
- Ikerketa teoriko eta aplikatuaren sustapena eta koordinazioa.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren sustapena eta koordinazioa.
- Berrikuntza Fondoaren kudeaketa.
- Ikerketa Kooperatiboko Zentroak.
- Ikerketako bikaintasun-zentroak.
- Berrikuntza, 10.1.b. atalean jasotako enpresa sektorekoa salbu.
- Lege eta erregelamenduekin bat etorriz, Sailaren menpeko edo atxikitako sektore publikoko erakundeen zuzendaritza.
- Lege eta erregelamenduek emandako gainerako ahalmenak.

Zientzia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren eragileak

Universidades y centros de formación prestakuntza- zentroak

UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, EUNEIZ Unibertsitatea, Universidad de Navarra (Tecnun), UNED, Musikene.

Basque Excellence Research Centers (BERCak)

BC3 (Basque Center for Climate Change), BCAM (Basque Center for Applied Mathematics), BCBL (Basque Center for Cognition, Brain & Language), BCMaterials (Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures), Polymat (Basque Center for Macromolecular Design and Engineering), Achúcarro (Basque Center for Neuroscience), DIPC (Donostia International Physics Center), FBB (Fundación Biofísica Bizkaia), MFC (Materials Physics Center).

Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CICak)

Biogune, Biomagune, Nanogune, Energigune.

Kontseiluak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.

Agentziak, fundazioak, elkarteak eta bestelako erakundeak

Innobasque (Berrikuntzaren Euskal Agentzia), Ikerbasque (Zientziarako Euskal Fundazioa), Unibasq (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia), beste erakunde batzuk: Eusko Ikaskuntza, Elhuyar, UEU, Jakiunde, Euskampus.

Euskal gizartearen zerbitzura dagoen unibertsitatea

Pertsona guztientzako unibertsitatea, euskararen ospea eta prestigioa areagotzen lagunduko duena, gizarte- eta enpresa-ehunetik gertu egongo dena, mundura irekita, eta, batik bat bere diziplinen abangoardian dauden profesionalen eskutik prestakuntzarik onena eskaintzeko gai izango den unibertsitatea.

Unibertsitate-prestakuntzaren eta ikerketaren aldeko Ituna

Unibertsitate-prestakuntzaren eta ikerketaren aldeko Ituna egin nahi dugu, Unibertsitateko eragileekin lortutako akordio zabalaren emaitza izango dena eta talentuko pertsonak prestatuko dituen eta ezagutza aurreratua sortuko duen sistema baten oinarriak eta araudiak ezarriko dituena.

Euskal Unibertsitateari buruzko Legea sartuko dugu legegintza-egutegian.

2026-2030 Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana

2026-2030 unibertsitate planak inbertsio-ahalegin publiko-pribatu handiagoa izango du bere baitan eta UPV/EHUren funtsezko izaera berretsiko du, hori bermatzeko finantzaketa egokia emanez.

Denentzako unibertsitatea

Prestakuntza-eskaintza zabala eta askotarikoa izango duena. Beketarako diru gehiagorekin (%6ko igoera urteko) eta kudeaketa arinagoarekin, nazioarteko mugikortasuneko bekak indartuz, eta ikertzen hasteko laguntza bereziak ezarriz.

Euskararen erabilerari ospea eta prestigioa ematen lagunduko dion unibertsitatea

Euskarazko ikasketen eskaintza handiagoa, bai eta on line ikasketena ere.

Euskararen erabilera sustatzea, ezagutza gizartean zabaltzeko jarduerei arreta berezia eskainiz.

Gizarte- eta empresa-ehunetik gertu egongo den unibertsitatea

Beken edo kontratuen bidez ikas-ekinezko prestakuntza duala eskainiko duen unibertsitatea, prestakuntza-mota hori enpresa eta beste erakunde batzuetara zabalduz. Eta, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen arteko titulazio bateratuen eskaintza zabalagoa izango duena.

Mundura irekia egongo den unibertsitatea

Beste unibertsitate-sistema bikain batzuekin lankidetzan arituko dena, nazioarteko aipamena duten doktorego gehiago eta ingeleseko ikasketen eskaintza zabalagoa izango dituena; ikasleen ostatu premiei erantzuteko jarrera proaktiboa erakutsiko duena eta kanpoko ikasleei irekitako masterren eskaintza handiagoa izango duena.

Kalitate handikoa eta nazioartean erakargarria

Ikasketa Aurreratuen Zentroa izango duena; hain zuzen ere, euskal ikerketa-jardueraren nazioarteko aintzatespena erraztuko duena, gure herriko ikasleei mailarik goreneko prestakuntza modu onean eskainiko diena, beste herrialde batzuetako ikasleak erakarri eta beren diziplinen abangoardian dauden ikertzaileen helmuga akademikoa izango dena.

Ikerketa ezagutzaren mugan

Ondo hornitutako prestakuntza-programa eta proiektuetan oinarritua, azpiegitura egokiekin eta abangoardiako ikerketa eta gizarte-eragina sustatzera bideratutako estrategia izango duena gidari.

Goi-mailako ikerlariak prestatzeko baliabideak

Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko programetako inbertsioak urteko %6 handituz.

Prestakuntzako oinarrizko mekanismo gisa, ikertzaileen nazioarteko mugikortasuna sustatuz, eta doktoratu ondoko ikertzaileak itzultzeko kontratazio-aldia bikoiztuz, 4 urtera arte.

Ondo hornitutako ikerketa bultzatzeko proiektuak

Zientzia eta abangoardiako ikerketako inbertsioetan %6ko igoera urteko (2030ean BPGren %3 izateari begira); hain zuzen ere, Ikerbasqueren bitartez goi-mailako ikerlari gehiago erakarri ahal izateko eta BERCetarako, CICetarako eta abangoardiako unibertsitate-ikerketarako baliabide gehiago jarri ahal izateko.

Azpiegiturak eta proiektu estrategikoak

LINKER *(Large Infrastructures for Key Excellence Research)*: HPC Hyperion DIPC, Ikerbasque eraikina, Nanofotonika Kuantikako Laborategia.
IKUR Estrategia (Gizartean eragina duen zientzia bikaina): Basque Quantum (Teknologia kuantikoak garatzeko erakunde arteko lankidetza Plana); BN3 (Basque NanoNeuroNetwork).

Europako partzuergoetan partehartzea: European Research Infrastructures Consortiums (ERICak)

European Spallation Source (ESS Bilbao), *European Marine Biological Resource Centre* (Plentziako Itsas Estazioa, PIE), *EuroBioImaging* (FBB), ERIC SLICES-RI.

Bere kideak zaintzen dituen sistema

Lan-giro eta -baldintza onak eskaini, berdintasuna eta inklusioa sustatu eta integritate zientifikoa zaintzen duen zientzia-sistema.

Prozedura arinagoak

Ahalik eta prozedura gehienetan, konfiantzaren printzipioa ezartzen saiatzen den sistema.

Lan-giro eta -baldintza onak sustatzeko neurriak

Bitarteko irakasle eta ikertzaileak edo prestatzen ari direnak egonkortzeko estrategia.

Irakasle eta ikertzaileen lanaldi partzialeko kontratuak alde batera uzteko plana, lanbide-jarduera unibertsitateko irakaskuntzarekin bateratu nahi duten profesionalen kasuan izan ezik.

Ikertzaileen ongizate psikologikoa zaintzeko programa.

Berdintasuna sustatzeko politika inklusiboak

Unibertsitateko ikerketan eta irakaskuntzan gizonek eta emakumeek aukera, eskubide eta aintzatespen berdinak izateko neurriekin.

Diskriminazio- edo jazarpen-egoerei aurrea hartzeko edo zuzentzeko jarduerak.

Ingurune akademiko osasuntsua bultzatuko duen sistema

Produktibitate akademikoaren adierazleen berrikuspen kritikoa.

Ikerlarien integritatea sustatzeko ekimenak.

Berrikuntza, irismen sozial handiko ardatz handietan egituratua

Ezagutza eta berrikuntza giza osasunaren eta ingurumenaren zerbitzura, gure kultura-ondasunen sustapenera, gizarte-premien arretara eta, azken batean, gizarte oparoagoa, kohesionatuagoa eta demokratikoagoa izateari begirako ezagutza eta berrikuntza.

2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren sustapena eta koordinazioa

Emaitza partzialen aldizkako ebaluazioak, eta, bereziki, indarraldiaren erdia igarota (2025).

Ebaluazio horren emaitzen arabera, helburuen eta adierazleen birformulazioa.

Innobasquerekiko elkarlana bere Plan Estrategikoa osatzeko eta horren erlazioa Jaurlaritzaren berrikuntza politikekin.

Jaurlaritzaren berrikuntza politiken koordinazioa

Sailen arteko sinergiak eta lankidetzako eremu potentzialak identifikatzea

Berrikuntzaren ardatz nagusien definizioa, eta hori garatzeko Jaurlaritzaren plana edo planak egitea. Esaterako: (1) Osasun bakarra, osasun globala *(One Health)*. (2) Adimen artifiziala eta digitalizazioa osasunaren zerbitzura. (3) Adimen artifizala eta digitalizazioa euskal kulturaren zerbitzura eta euskararen erabilera sustatzeko. (4) Gizarte-politikei begirako berrikuntza.

Berrikuntza Fondoaren kudeaketa, Jaurlaritzak lehen aipaturiko planetan dituen aurreikuspenen arabera.

Ezagutza eta berrikuntza gizarte demokratikoagoaren zerbitzura

Gizartean ezagutza zabaltzeko plan integrala.

Unibertsitateen arteko sare akademikoa, ezagutzaren eta demokraziaren arteko harremana aztertzeko eta hobetzeko.

Ondorio gisa

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila ezagutza aurreratuaren sorkuntza (Ikerketa), transmisioa (Prestakuntza), transferentzia eta hedapena (Berrikuntza) sustatu eta bultzatzeko helbururarekin jaio da; horren bitartez, euskal gizartearen oparotasuna, kohesioa eta kalitate demokratikoa areagotzeko.